

Zangoza / 2022

KULTUR AGENDA

abendua



Ayuntamiento de
Sangüesa/Zangoza



CASA DE CULTURA DEL PALACIO VALLESANTORO



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultura-Etxea

Kultura-zerbitzuko arreta ordutegia: astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aretoko Ordutegia: Aasteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara. Igande eta Jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.



Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251.

Gonbidapenak hartzea: Gehienez 6 sarrera jaso ahal izanen dira pertsona eta jarduera bakoitzeko. Sarrerak ez dira zenbakituak, publikoa iritsitako ordenaren arabera eseriko da. Gonbidapenak abenduaren 1etik aurrera jaso ahal izanen dira Kultura-Etxean asteartetik ostiralera 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948 870251 telefonora deituz edo infocultura@sanguesa.es helbidera idatziz.

Abenduaren 24, 25, 26 eta 31n Kultura-etxea itxita egonen da.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetan eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken eta Instagramen eta www.sanguesacultura.es

web-orrian gure kultura-agenda jarrai dezakezu eta datuak babesteko legea honakoetan kontsultatu: www.sanguesa.es

 www.facebook.com/culturasanguesa  www.instagram.com/culturasanguesa

Carmengo Entzunaretoa

Aldez aurreko salmenta: abenduaren 1etik aitzina Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. Tfnoa: 948 870 251.

Salmenta txartel-leihatilan antzezen egunetan: Karmengo Entzunaretoko txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik. **Argibide telefonoa:** 948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Udalak pertsona bakoitzeko sarrera kopurua aldatu ahal izanen du ikuskizunaren arabera. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko ikuskizunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarria izanen da.

Beharpenak Gazte txartelarekin: 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoa sartzean, bai sarrera aretoan bertan erosten bada, bai internet bidez erosten bada.

ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoa badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonia erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparatuerik eraman ez arren.

Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoa mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora, edo adierazi txartel-leihatilan erosketara egiterakoan.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.



1	Og	Erakusketa. "Si ves une extrañe, saludale de mi parte" (abenduaren 11a bitarte)	4. orr.
	Og	Kultur astea Horizonte Elkarte. Zangozako Gaiteroen kontzertua	9. orr.
2	Os	Kultur astea Horizonte Elkarte. Udal Banda Elkartearen kontzertua	9. orr.
3	La	Nafarroaren Eguna. Gaztelu Ahotsak	6. orr.
4	Ig	Zinea. "Encanto"	6. orr.
5	Al		
6	As		
7	Az	Ipuin-kontalaria. "Cuentos en bandeja" (gaztelaniaz)	7. orr.
	Az		
8	Og		
9	Os	Zangotzarra aldizkariaren aurkezpena	9. orr.
10	La	Antzerkia. "El rey tuerto"	5. orr.
	La	Elkartasunaren Azoka	12. orr.
11	Ig		
12	Al		
13	As	Zangozako Musika Eskolako ikasleen kontzertua	8. orr.
14	Az	Gabonetako Tailerra. "Ilumina la Navidad"	10. orr.
15	Og	Erakusketa. "Jaiotzak historiarekin" (urtarrilaren 8a bitarte)	4. orr.
	Og	Eguberriko haur-lanen erakusketa (urtarrilaren 8a bitarte)	4. orr.
	Og	Bideoaren aurkezpena. "Representación virtual del Castellón de Sangüesa/Zangoza	8. orr.
	Og	Banda Txikiaren, Big-Banden eta Orkestaren Eguberriko kontzertua	10. orr.
16	Os		
17	La	Nora Abesbatzaren Eguberriko kontzertua	10. orr.
18	Ig		
19	Al		
20	As	Hitzaldia. "Engaños sobre economía que conviene conocer"	9. orr.
21	Az	Ipuin-kontalaria. "Koloretako elur bolak" (euskaraz)	7. orr.
	Az	Zangozako Musika Eskolako ikasleen kontzertua	8. orr.
22	Og	Gabon-kanta kalejira	11. orr.
23	Os		
24	La	Olentzero	11. orr.
	La	Jaiotza bedekatzeta eta irekitzea	11. orr.
25	Ig		
26	Al		
27	As		
28	Az	Txotxongiloak eta objetuen antzerkia. "Hamelín"	5. orr.
29	Og	Hitzaldia. "Feliz Christmas-Marry Navidad" (gaztelaniaz eta inglesa)	7. orr.
30	Os	Udal Banda Elkartearen Eguberriko kontzertua	11. orr.
31	La	Gabon-kantzak karriketan "Bombardino ikasgela"	12. orr.

Azaleko irudia: "Hamelín".

KULTURA ALORRETIK OSASUN HANDIA OPA DIZUEGU ETA 2023AN ZUEKIN "KULTURA HURBILETIK" PARTEKATZEN JARRAI DEZAGUN.

Erakusketak



“Si ves une extraña, salúdale de mi parte”

LEIRE URBELTZ

ABENDUAREN 11RA BITARTE

“Beste lurraldeetara bidaiatzea norberaren mugak bilatzea da.

Etzetik urruntzen zaren bitartean, zure barne geografia elastikoagoa bihurtzen da. Bitxia da. Inguratzen zaituen guziarekin ezezagutzen zarenean, zure ohiturek bahitu dizuten arreta erreskatatzen duzu. Itzultzen zarenean oraindik neskatila zauritu berdina zara, baina orain urruntzeko ahalmen handiagoarekin”.

Leire Urbeltz

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxe
Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernu.



“Jaiotzak Historiarekin”

ABENDUAREN 15ETIK URTARRILAREN 8RA

Ibilbide historikoa XX. mendearen erdialdean zangozarren gabonetan egiten ziren antzinako jaiotza herrikoietan barrena. Ikerketa bat ondare immaterialaren esparruan, Zangozako merindadean errotuen eta maiteen dagoen kultura-adierazpenetako baten historia eta dokumentazioa biltzen dituena: jaiotza.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxe
Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernu.



Eguberriko haur-lanen erakusketa

ABENDUAREN 15ETIK URTARRILAREN 8RA

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxe
bigarren solairuko Erakusketa Aretoa.

Laguntzaileak: Otik 3 urtera bitarteko Zentroa, Luis Gil Ikastetxe Publikoa, Zangozako Ikastola eta Luna Haur-zentroa.



Erakusketa Aretoko bisita-ordutegia:

Asteartetik larunbatara, 19:00etatik 21:00etara.
Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

Arte Eszenikoak

Karmengo entzunaretoan



ANTZERKIA

“El rey tuerto”

IN EXTREMIS TEATRO

LARUNBATEAN, ABENDUAK 10

Zuzendaria: Fernando Bernués.

Antzerkilariak: Txori García Uriz, Iratxe García Uriz, Leire Ruiz, Oier Zuñiga eta Ion Barbarin.

Bi lagunek, Lidiak eta Sandrak, denbora luzea daramate elkar ikusi gabe, bikote-afari bat antolatzea erabaki dute, euren bikotekideak ezagutzeko: David, istiluen aurkako polizia bat, eta Ignacio, manifestaldi batean jo zuen gomazko bola baten erruz begi bat galdu zuen dokumentalista sozial bat. Hori guztia politikari baten diskurtsoek girotuta, oso bertan dagoena.

Horrela hasten da konbikzioen hauskortasunari, gizarte-rolen izaerari eta egiaren bilaketari buruzko komedia garratz bat.

Errege begibakarrak adierazpen-eskubidearen, kontrol sozialaren, etikaren eta moralaren arteko bidegurutzean kokatu nahi gaitu indarraren neurrigabeko erabileran. Umore beltzaren dosi handiekin.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Iraupena: 75 minutu.

Ordua: 20:00.

Aldez aurreko sarrerak: 8 €.

Txartel-leihatilako sarrerak: 10 €.

Sarrerak gazte txartelarekin: 5 €. Bai entzunaretoan, bai interneten bidez erosita ere, gazte txartela aurkeztu beharko da txartel-leihatilan.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea Elkartea (NAS) eta Nafarroako Gobernuak.



TXOTXONGILOAK ETA OBJEKTUEN ANTZERKIA

“Hamelín”

XIP XAP

AZTEAZKENEAN, ABENDUAK 28

Klasiko batzuek denboraren joanean bizirik irauteko eta guztiz garaikideak zaizkigun irakurketak eskaintzen jarraitzeko ahalmena dute, hala nola «Hamelín», ipuin klasikoan oinarritutako ikuskizuna, gure ustez kontatzea ezinbestekoa den esentzia bat bizirik mantentzen duena.

Hamelinek zurea izan litekeen hiri baten zorigaitz misterioitsua azaltzen du, non auzokide guztiak bizi diren beren poz eta desadostasunekin, baina gertaera batek modu dramatikoan aldaraziko du haien elkarbitza.

Herritarrak arratoi izurrite batek inbaditzen ditu, baina inork

Arte Eszenikoak

Karmengo entzunaretoa



ez daki nondik datozen, edo agian ez dira inondik ere etorri eta beti hantxe egon dira?

Hamelínek Drac d'or Fecoll 32. Lleidako Txotxongilo Azoka saria jaso zuen eta Titirijai 2021eko haur epaimahaiaren saria.

Ikusleak: Sendiak eta haurrak.

Iraupena: 50 minutu.

Ordua: 18:00.

Aldez aurreko sarrerak: 3 €.

Txartel-leihatilan: 5 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkarte eta Nafarroako Gobernua.

Zinea



“Encanto”

IGANDEAN, ABENDUAK 4

«Encanto» pelikulak familia zoragarri baten istorioa kontatzen du, Madrigaldarrak, Kolonbiako mendietan ezkatututa bizi direnak, Encanto izeneko leku zoragarri batean kokatutako etxe magiko batean. Encantoren magiak dohain paregabea eman die familiako haur guztiei, super indarretik hasi eta sendatzeko ahalmeneraino. Baina familiako kide bat ahaztu zitzaion: Mirabel. Honek Encanto inguratzen duen magia arriskuan dagoela jakiten duenean, bera, Madrigal normal bakarra, bere familia apartaren azken itxaropena izan daitekeela erabakiko du.

Ikusle guztiendako. 9 urtetik beherakoek helduekin joan behar dute.

Iraupena: 99 minutu.

Ordua: 18:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrerak: 3 €.

Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua.

Nafarroaren Eguna



GAZTELU AHOTSAK

LARUNBATEAN, ABENDUAK 3

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Ordua: 12:00. **Sarrera doan** edukiera bete arte. Ez da beharrezkoa izanen aldez aurretik gonbidapena hartzea. Ateak 11:30ean irekiko dira.

Antolatzaileak: Nafarroako Gobernua.

Ipuin-kontalaria



“Cuentos en bandeja”

(Gaztelaniazko ipuin kontalaria)

SERGIO DE ANDRÉS

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 7

Anaiei, arrebei, lehengusinei, lehengusuei, auzokideei, ezezagunei eta ezezagunei mundu guztiak errepikatzen ahal dizkien oso ipuin errazak.

Ezin errazagoa.



“Koloretako elur bolak”

(Euskarazko ipuin kontalaria)

AINHOA RUIZ

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 21

Elur bola guztiak hagitz bestalakoak dira! Batzuk hain daude estuak, non harria baino gogorragoak diren. Beste batzuk hain dira bigunak, ezen mila malutatan lehertzen baitira nire anaiaren buruaren kontra jotzen. Batzuk lokatzez zikinduta daude eta beste batzuk distiratsu. Bazenekien denek istorio bat ezkututzen dutela? Istorio gogorak, bigunak, zikinak edo distiratsuak. Eta nik badakizkit den-denak!



“Feliz Christmas – Merry Navidad”

(Gaztelaniazko eta ingelesezko ipuin kontalaria)

DIVERXA. CRISTINA MARTÍNEZ

OSTEGUNEAN, ABENDUAK 29

Mari Domingiri, Rudolphi, gameluei, opariei eta elurrari buruzko guztia dakizula uste baduzu, saio honetan harritu egingen zara. Ipar polotik hasi eta hondartza tropikaletaraino, beste gabonak aurkituko dituzu.

Gaztelaniaz kontatua eta ingeles errazez hornitua familia osoarendako, dibertitu egingen zara eta, nahi baduzu, abestu ere egingen duzu.

Ikusleak: 3 eta 8 urte bitarteko umeak.

Adingabeei helduek lagundu behar diete.

Doako sarrera.

Ordua: 18.30.

Iraupena: 60 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Aurkezpena



“Representación virtual del Castellón de Sangüesa/Zangoza”

BIDEOAREN AURKEZPENA

OSTEGUNEAN, ABENDUAK 15

Hizlariak: Iker Ibero (bideoaren erralizadorea) Errealizazio historikoan aditua eta Alexandre Duró (Arkeologia-aholkularia) Arkeologian lizentziatua, Informazio Geografikoko eta Teledetekzioko Sistemetan Masterra, Ondarearen Zaharberritze eta Bistaratzean Unibertsitate Espezialista. Hizlariak, lan honetan izan duten lankidetzaren kontakizunaren, esperientziaren eta lan hori garatzeko moduaren bidez, Zangozako eta Nafarroako Ondare Historiko bat ezagutaraziko digute, duela gutxi arte erabat ahaztuta zegoena, eta aztarnategi hori eta haren aukerak bil ditzakeena.

Bide batez, garai hartara eramanen gaituzte, orduan nola bizi ziren jakiteko, baita Nafarroaren mugaren defentsa gisa Antso VI.a Jakitunak 1171ean eraikitzea agindu zuen Gazteluak zer garrantzia zuen ere.

Ordua: 19:00.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/
Kultura-etxeke Hitzaldi Aretoa.

“Juan Francés de Iribarren” Musika Eskola



**Zangozako «Juan Francés de Iribarren»
Musika Eskolako ikasleen
Ganbera-musikako kontzertua**

ASTEARTEAN, ABENDUAK 13

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 21

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Zangozako Erakunde Kulturalen Ekitaldiak



Zangozako Gaiteroen Kontzertua

OSTEGUNEAN, ABENDUAK 1

Ordua: 20:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Doako sarrera.

Antolatzailea: Horizonte Elkartea.



Udal Banda Elkartearen kontzertua Horizonte Elkarteko errondaila eta Koruarekin batera

OSTIRALEAN, ABENDUAK 2

Ordua: 20:00.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrerak: 5 €.

Antolatzailea: Horizonte Elkartea.



Zangotzarra aldizkariaren aurkezpena

OSTIRALEAN, ABENDUAK 9

Ordua: 19:30.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.

Antolatzailea: Henrike II.a Albretekoa Kulturaldea.



HITZALDIA

“Engaños sobre economía que conviene conocer”

ASTEARTEAN, ABENDUAK 20

Hizlaria: Sixto Jiménez Muniain.

Konferentziak sinpleki jorratuko ditu ekonomiari buruzko esanen oso eztabaidagarriak edo are okerrak ere, herritarren erabaki politikoetan eragiteko erabiltzen direnak. Horien adibide dira pentsioen bideragarritasunari buruzko zalantzak, enplegua sortzeko zergen jaitsierak, etab.

Ordua: 18:00.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.

Antolatzailea: Zangozako Etxekoandreen Elkartea.

Gabonetako tailerra



“Ilumina la Navidad”

**Sortu zure etxetxo argizatua
Gabonetako zuhaitzetik zintzilikatzeko**

ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 14

Tailer honetan dibertitu egingen gara hiru dimentsioko etxetxo bat sortuz, piladun led batekin argiztatuko duguna. Gainera, zintzilikario bat jarriko diogu, beren etxetxo argizatua Gabonetako zuhaitzean jar dezaten.

Haurrek eta helduek papercraft (hiru dimentsioko paperezko irudiak) eta argijokoaren sormen-aukerak aztertuko dituzte.

Irakaslea: Mila García.

Pertsona guztiendako 5 urtetik aurrera.

7 urte baino gutxiagokoei helduek lagundu behar diete.

Inskripzioak: Doan 948 870 251 telefonoan edo infocultura@sanguesa.es posta elektronikoz. Edukiera mugatua.

Ordua: 18.30.

Iraupena: 90 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeke Erabilera Anitzeko Aretoa.

Eguberria



Zangozako «Juan Francés de Iribarren» Musika Eskolako Banda Txikiaren, Big-Banden eta Orkestraren Eguberriko Kontzertua

OSTEGUNEAN, ABENDUAK 15

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Antolatzailea: Juan Francés de Iribarren Musika Eskola.



Nora Abesbatzaren Eguberriko kontzertua

LARUNBATEAN, ABENDUAK 17

Ordua: 19:00.

Lekua: Aita Kaputxinoen Eliza.

Antolatzailea: Nora Abesbatza.

Eguberria



Musika Eskolako Bandaren eta Udal Banda Elkartearen Gabon-kanta kalejira

OSTEGUNEAN, ABENDUAK 22

Ordua: 19.00

Antolatzailea: Juan Francés de Iribarren Musika Eskola.



Olentzero

LARUNBATEAN, ABENDUAK 24

Olentzeroren harreran eta festan parte hartzea animatzen zaituztegu.

18:15ean Irteera ikastolatik eta kalejira herriko txikiak bilduz; geldialdiak Luis Gil Ikastetxean eta Kurriñosen.

18:45ean Arkupeetako plazan txokolatada, gaztainak eta ardo errea.

19:10ean Zarpantzarren deia Olentzeroren bila joateko, Xabierko errepidetik datorrena.

19:30ean Olentzerori harrera eta jaiak Arkupeetako plazan Kantuzekin, dantzekin eta argazkiekin.

20:30ean Agurra Olentzerori eta zozketa.

Antolatzailea: Zangozako Ikastola.



Jaiotza bedekinatzea eta irekitzea

LARUNBATEAN, ABENDUAK 24

Ordua: 19:30.

Lekua: Abatetxeko Plaza.

Antolatzailea: Misterio de Reyes Elkartea.



Udal Banda Elkartearen Eguberriko kontzertua

"MELODÍAS DE LA MEMORIA"

OSTIRALEAN, ABENDUAK 30

Bandak Gabonetako kontzertu tradizionalari ekinen dio berriz ere, eta musikari esker oroimenaren eta oroitzapenaren inguruan egituratuko da kontzertua.

Lehenengo zatiak, jatorriz bandarako idatzitako musikaz osatua, historiako hainbat herri eta komunitate ekarriko ditugogora, besteak beste, Apalaches mendiak

Eguberria



behatu ahal izateko haien izena jasotzen duten tribuaren eskutik edo Burdin Arora joateko, zelta herrien eta haien ohituren multzoari esker.

Bigarren zatian, intermezzo musikal «oso bulegari baten» eta proposamen benetan animatu baten ondoren, bandak Gabonetako bi errealitate musikal islatuko ditu, talde honendako hain berezia den urte honi amaiera emateko.

Zuzendaria: Javier Calvo Lerga.

Ordua: 20:00.

Iraupena: 95 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.

Sarrerak: 5 €.

Antolatzailea: Udal Banda Elkarte.

**Gabon-kantak karriketan
"Bonbardino ikasgela"**

LARUNBATEAN, ABENDUAK 31

Ordua: 12.30

Lekua: Irteera Prautik.

Antolatzailea: Juan Francés de Iribarren
Musika Eskola.

Beste ekitaldi batzuk



ELKARTASUNAREN AZOKA

LARUNBATEAN, ABENDUAK 10

Topaketa Zangozak laguntzen dien nazioarteko lankidetzako eta tokiko gizarte-ekintzako erakundeekin. Beste kontinente batzuetako komunitateetan edo gure hirian egindako lana ezagutzeko erakusleihoa.

Artisautzaren salmenta eta haurrentako jarduerak.

Ordutegia: 11:00etatik 14:30era.

Lekuak: Karrika Nagusia eta Arkupeak.

Antolatzailea: Zangozako Udalaren
Gizarte Gaietarako Batzordea.